

Euskal Departamenduaren 'Liburu Zuria' argitaratu du Renaud Elizagaraik

Iparraldeko zinegotzi guztiei banatu eta gaiari buruzko iritzia galdeginen diete

Euskal Departamendua-ren Aldeko Hautetsien Elkarteak Euskal Departamenduaren *Liburu Zuria* argitaratu du. Renaud Elizagaraik egindako lanak Euskal Departamenduaren onurak ageri ditu. Ipar Euskal Herriko hautetsi guztiei banatuko diete, auzapezen aldeko iritzia jakinik, orain Herriko Etxe bakoitzean Euskal Departamenduaren aldeko iritzia buruzko bozka sekretua egin dezaten galdeginen baitute.

Hur Gorostiaga / Baiona

IRAGAN urteko urrian Ipar Euskal Herriko auzapez gehienak Euskal Departamendua sortzearen alde agertu ondoren, Euskal Departamenduaren Aldeko Hautetsien Elkarteak eztabaida gizarteratzeko xedea agertu zuen. Baina auzapezen iritzia baikorra jakinik, lehenbailehen Iparraldeko gainerantzeko hautetsien iritzia jakin nahia azaldu zuten. Hiru diputatuetarik bi alde agertu ziren. Azkenik, Ipar Euskal Herriko Herriko Etxe guztietako kontseilari edo zinegotzien iritzia jakin beharra azpimarratu zuten. Horretarako, informazio txostena lantzen aritu da Renaud Elizagarai, eta aste honetan argitaratu dute Euskal Departamenduaren *Liburu Zuria*. 3.000 aletan aterata, Iparraldeko zinegotzietan banatuko diete, ondotik Herriko Etxeetan bozka sekretu baten bidez iritzia eman dezaten.

Txosten horren mamia EGUNKARIAK aurtengo maiatzaren 21ean argitaratutako bera da. Hala ere,



Renaud Elizagaraik (ezkerrean) eta Jean Aniozbeherek aurkeztu dute Euskal Departamenduaren aldeko *Liburu Zuria*.

JAGOBA MANTEROLA

geroztik Elizagaraik zenbait datu gehitu ditu eta Euskal Departamenduaren Aldeko Hautetsien Elkartearen oniritzia jaso du.

Lau zatitan banaturik, lehenean Euskal Departamendua ekonomikoki bideragarria dela ageri da, derrigorrezkoak diren zenbaki eta datu guztiak bildurik horren frogatzeko. Bigarrenik, berriz, bideragarria izateaz gain, «hats berri kolektibo baterako indar berria» izanen litzatekeela ageri da. Kohesioa, unibertsitatea, Laborantza Ganbara, mugaz gaineko harremanak, 1.000 lanpostu berriren sorrera eta beste agri dira Euskal Departamenduaren sortzeko argumentu nagusi gisa. Hirugarrenik, ekonomikoak ez diren argumentuen zerrenda ageri da, euskal institu-

zioaren alde. Azkenik, Departamenduaren sorrerarako segitu beharreko prozedura aipu da.

Heldu den urteko hauteskundeetan gaiak bere garrantzia izanen duela azaldu zuten Jean Aniozbehere Sarako auzapezak eta Renaud Elizagarai Baionako zinegotziak. Hautagaiak gaiari buruz duten iritzia araberak, haiendako boza galdeginen dute ala ez. Kasu horretan, aitzitik, Elizagarai eta Aniozbehere ez ziren bat agertu. Aniozbeheren idurikoz, «azken helburua Euskal Departamendua dutenendako bozka» galdeginen dute. Elizagarai idurikoz, aldiz, «Euskal Departamenduaren alde ere» agertzen direndako galdeginen dute. Aniozbeherek egindako diferentzia abertzaleen kontrakoa

da, noski. Elizagaraik Euskal Departamendua baino gehiago galdegitea «sinpatikoa» dela arrazoi-tu zuen, baina «ez errealista».

Nicole Peryk Euskal Departamendua sortzeko ezarritako epeaz ere aritu ziren bi hautetsiak. Elizagaraiaren ustetan, «arrazoizko» da bi edo hiru urte itxoin behar izatea. «Euskal Departamenduaren aldeko egiazko herri presioa lortu behar dugu, hemen aurka dauden hautetsi bakan baina astun horiek alde ezartzeko. Gisa berean, Peryk Parisko gune erabakitzaileak bereganatzeko beharrezko denbora izanen da», azaldu zuen. Azkenik, heldu den urteko hauteskundeetan ez dutela parte hartuko adierazi zuten bi kideek, beren neutraltasuna atxikitze xedea dutelako. X

Jarraik dio «kriminalizatu» egin nahi dutela sei kideren aurkako epaiketa baliatuz

«Gure borrokak min egin dio Estatuari», diote

P. Agirre / Donostia

MADRILGO Entzutegi Nazionalan Jarraiko sei militante epaitzen ari dira egunotan, Y taldeekin zerikusia izateaz akusatuta. Horien artean dira Jon Salaberria eta Imanol Iparragirre, gazte erakunde horretako bozeramaile izandakoak. Epaiketa horrekin «gazteen konpromezua zigortu eta Jarrairen proiektua kriminalizatu» nahi dutela salatu zuten atzo Unai Lizasok eta Ana Lizarralde.

«Gure borrokak, gazteen borrokak, min egin dio Estatuari, eta horregatik errepresioaren azeleratzailea zantatu du», esan zuten. Hala ere, Jarraik orain arteko ildoari eta konpromezuari eutsiko diola iragarri zuten.

Iparragirrez eta Salaberriaz gain, Gipuzkoako Goierri eskualdeko beste lau gazte - Argider Mujika, Iker Atxotegi, Urko Galarraga eta Oskarbi Jauregi - epaitzen ari dira. «Terrorismo delitua» egotzi eta zazpi urteko espetxe zigorra eskatzen du fiskalak haien izateaz. Lehenengo biak Y talde-tako koordinatzaile izateaz akusatzen ditu, eta sabotaje-egileak izateaz besteak.

Epaietak gaur jarraituko du fiskalak proposatutako lekukoan eta perituen deklarazioekin. Astelehenean akusatuek ukatu egin zuten Y taldeekin zerikusia izatea. Bestalde, Zaldibiako Udalak Entzutegira igorri zuen elkartasun mozioa gaitzetsi zuen AVTk daraman herri akusazioak, eta delitua ote den ikeritzeko eskatu zuen. X

ETApm-ren proiektu politikoa azaldu du Giovanni Giacopuzzik bere azken liburuan

■ *Kazetari italiarrak atzo aurkeztu zuen 'ETApm. El otro camino'*

Ramon Olasagasti / Donostia

GIOVANNI GIACOPUZZI kazetari italiarrak *ETApm, El otro camino* bere azken liburua aurkeztu zuen atzo. Txalaparta argitaletxearen eskutik kaleratu den liburu hau «euskal gizartearen bilakae-ran eragin handia izan duen eta egun ere baduen proiektu politiko baten isla da», egilearen hitzetan.


Luigi Brunik ETArekin historia politikoari buruz idatzitako liburuaren ondorioz hasi zen Giacopuzzi Euskal Herriaren inguruan arreta jartzen. Harrezkero, Bruniren lana eguneratzeaz gain, bi liburu idatzi ditu ETArekin eta gatazkaren gainean: *Los días de Argel* Iñaki Egañarekin batera

eta *ETA, historia política de una lucha armada*. Oraingo liburuak, berriz, «gure historiako hutsune bat betetzen du», Jose Mari Esparza Txalaparta argitaletxeko kidearen arabera, «ETApm, Euskal Herriko esperientzia politikoa garrantzitsuenetariko bat izan baitzen». Esparzak esperientzia hartan parte hartu zutenei aho-tsa emateko Giacopuzzik eginko ahalegina nabarmendu zuen.

Giacopuzzik berak ere horixe bera nabarmendu zuen: «Ahalik eta iturri gehien kontsultatu ditut. Saiatu naiz ETApm-ren barruan izan ziren ahots guztiei bidea ematen». Era berean, egileak jakinarazi zuen esperientzia politikoa hura ETApm proiektuarekin ez zela amaitu azaitzen

saiatu dela liburuan, «protagonista haietako askok euskal politikan jarraitzen baitute». Hala-ber, urte haietako ilusio, helburu eta asmoak proiektu politiko horren ikuspuntutik islatzen saiatu dela esan zuen kazetari italiarrak.

Azken batean, taldearen barneko mekanismoak, teoriaren eta praktikaren arteko kontraesanak, barneko analisi eta eztabaida politikoak, banaketak eta ondorio politikoa zein humanoak... polimilien testigantza bizien bidez tratatu ditu egileak *ETApm, El otro camino* liburuan. «Laburbilduz, *polimili*-en proiektuaren barrutik (1974-1986), proiektuaren beraren arrazoiak eta logika politikoa azaltzen ditu, objektibo izateko beharrezko pespektibekin», adierazi zuen Giacopuzzik.



Giovanni Giacopuzzi kazetaria atzo, liburuaren aurkezpenean.

EDURNE KOCH

Borroka armatuaren aukera hartzea behartutako gizon eta emakumeak dira. Bizitza aukera edo erronka bat egin behar izan dute. Zaila da ulertzen ideologiak eta baloreak galtzen doazen garaioan. X

«Normalean, kontestu batek